

opusdei.org

Brasilean Aita Santua lagundu "Otoitz eta lanarekin"

Javier Echevarria Opus Deiko
prelatuak Vatikanoko Irratian
egindako adierazpenak

2007 Mai 16

“Aita Santuak bidaiak egiten ditu,
zertarako eta bere burua besteei
eskaintzeko”, esan du Opus Deiko
Prelatuak Vatikanoko Irratiari emaniko
azalpenetan. Brasilerara hasten du
Benedikto XVI.ak bidaiaria hilak 9an.

“Poztasun handiz ari naiz prestatzen Benedikto XVI.ak Brasilerara egingo duen pastorgintzako bidaiarako, eta bat egiten dut, Amerikako herriak, Pedroren oinordea hartzeko duten poztasunean” baieztatu du Javier Echevarria Monsignoreak Vatikanoko Irratian egindako elkarrizketa batean.

Benedikto XVI.k, maiatzaren 9tik 14ra bitartean Latinoamerikara egingo duen lehen bidaia komentatuz, zera gaineratu zuen: “Ziur nago haren bake eta poztasunezko mezua, eta bere burua eskaintzeko jarraibidea bultzada handia izango direla, Amerika osoko kristauak, indarrez berrituz, sinismenaren edertasuna zabaltzeko saia daitezten”.

Prelatuak esan zuen, Aita Santuak, karitatearen testigantza eramango duela Brasilerara: “Benedikto XVI.a da, dioena bizi duenaren eta bizi duena

dioenaren etenik gabeko adierazlea; ez dago, harengan, irakaskuntzen eta jarduketaren arteko kontraesanik, ezta txikienik ere. Eta, Aita Santua, burutuz ari da Jainkoak, apostoluei, agindu egin ziena: agindu berria, elkarren artean maite dezagula. Benedikto XVI.ak beronen buruaz bizi du agindu hori, zerbitzari guztien, gizateri osoaren zerbitzari izanik”.

Echevarría Monsignoreak esan zuen, baita ere, Aita Santua “Elizako familia handiaren aitatzat duela bere burua, eta familia kristauak babestu nahi dituela”. Familia kristaua “oso da garrantzizkoa munduko herrialde guztien garapenerako eta gizakirako duintasuna den gizarte baterako”.

Prelatuak gonbitea egin zien Vatikanoko Irratiko entzuleei, Benedikto XVI.a lagun zezaten “otoitzez eta ilduraz”. Gainera, “gure lanaz ere lagun dezakegu zeren eta –

San Josemariak hainbeste aldiz
gogorarazi duenez– otoitz eta ildura
bihurtu baitaiteke.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/brasilean-aita-santua-
lagundu-otoitz-eta-lanarekin/](https://opusdei.org/eu-es/article/brasilean-aita-santua-lagundu-otoitz-eta-lanarekin/) (2025 Api
14)